

## **‘GO!AZEN 4.0’ telesailaren castingean parte hartzeko BALDINTZAK eta datuen kudeaketa**

Euskal Komunikazio Talde Publikoak (aurrerantzean, EITB) –helbidea: Basurtuko kaputxinoak 2, 48013 Bilbo–, PAUSOKA ENTERTAINMENT S.L. ekoizpen-etxearekin batera, ‘Go!azen 4.0’ izeneko telesaila ekoiztea aurreikusi du eta lau pertsonaiaren paperak egingo dituzten aktoreak bilatzeko casting bat jarri du martxan.

Castingaren lehen fasean, parte hartu nahi dutenek bidalitako **bideoak eta datuak** (aurrerantzean, materiala) jasoko dira [eitb.eus/goazen](http://eitb.eus/goazen) webgunearen bidez. Ondoren, bigarren fasea abiaraziko da: aurrez aurreko castinga.

Jasotako materiala eta aurrez aurreko castingean grabatutako irudiak (aurrerantzean, grabaketak) **hirugarrenei utzi** ahal izango dizkiete EITBk eta bere mendeko sozietateek. Horrez gainera, material eta grabaketa horiekin **hainbat ataleko telebista saioa** ekoizti ahal izango da eta EITB taldeko hedabideetan emititu ahal izango ditu.

Materiala Bidaltzaileak hurrengo hauek bermatuko ditu:

- 16 urte baino gehiago eta 23 baino gutxiago dituela.
- Materiala zuzenean bidaltzaileak lortu duela, materialaren gaineko eskubideen jabetza eta kontrola dituela eta agiri honetan zehaztutako baldintzetan EITBri lagatzeko gaitasuna duela.
- Materialaren edukiaren artean ez dagoela inolako pertsona, enpresa edo elkarterentzako difamaziorik, irainik edo kalumnariarik, eta ez dituela hirugarrenen jabetza intelektualeko, jabetza industrialeko edo bestelako eskubideak urratzen.
- Eskubide-lagapen hau gauzatu ahal izateko, materialean agertzen diren pertsonen baimenak dituela.
- Ez dela EITBren edo horren mendeko sozietateen langilea.
- Materiala egiazkoa eta benetakoa dela.

EITBk materiala eta grabaketak ez hedatzeko eskubidea du.

Bidaltzaileak emandako **datu pertsonalak** EITBNET, SAUren (EITBNET) titulartasuneko GIZARTEAREKIKO HARREMANAK izeneko fitxategian gordeko dira. Horrez gainera, baita PAUSOKA ENTERTAINMENT S.L. ekoiztetxeak helburu horretarako prestatutako fitxategian ere, saioaren castingaz eta ekoizpenaz arduratuko baita. Fitxategi horien helburua EITBren hedabideetan argitaratzeko eta/edo emateko jasotako materiala kudeatzea izango da.

Datuak Babesteko Lege Organikoak erregulatzen dituen datuetara sartzeko eta horiek zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkarazteko eskubideak baliatzeko, gutun bat eta NANaren fotokopia bidali beharko dira EITBren Departamentu Juridikoaren Zuzendaritzara (Basurtuko kaputxinoak 2, 48013 Bilbo).

Agiri honetan adierazitako baldintzaren bat bete ez duelako erreklamaziorik sortzen bada, bidaltzailea izango da erantzule.

EITB, 2017ko apirilean